

Maitane Erauskin Esnaola

D maila • 3 aipamena

Kaixo, Maitane Erauskin Esnaola naiz, aurten hamahiru urte bete behar ditut eta Beasainen bizi naiz. Loinazpen nabil ikasten. Hainbat zaletasun dauzkat, gehien gustatzen zaizkidanak kirola egitea eta marraztea dira. Kirola egitea gogoko dut, bereziki, futbola. Goierri-Gorriin jolasten hasi nintzen hamaika urterekin. Errealekoa naiz eta Anoetan partiduak ikustea izugarri gustatzen zait. Asko bidaiaitzen dut, herri ezberdinak ezagutzea gustatzen baitzait. Beti jakin nahi izan dut zer pentsatzen duten besteek, horregatik egin dut ipuin hau, ea gustatzen zaizuen!



PENTSAMENDUAK ENTZUTEKO APARATUA

Orain dela urte asko, Zarautzen uda hasi eta herritar guztiek poz-pez udako oporrak hasi zituzten. Zarautz herri nahiko handia da, Euskal Herrikoa. Hondartza du, izozki denda asko, parkea, eta baita mendiak ere.

Herriko etxe batean Albane izeneko neskato bat bizi zen. Berak hamabi urte zituen, jatorra eta alaia zen, begiak itsasoa bezain urdinak zituen, ilea luzea eta marroi kolorekoa, irudimen ikaragarrikoa eta kirolaria ere bazen gainera. Oporrak hartu zituzten lehen astean hondartzara joan zen bere lagunekin. Hantxe eguzkia hartzen eta izozkia jaten ari zirenean, Albanek galdetu zuen:

-Nahi al du inork karramarroak hartzera etorri?

Guztiek ezetaz erantzun zuten haurren kontuak zirelako eta eguzkia hartzen hobeto zeudelako. Tira guziek, Irenek izan ezik.

Irene eta Albane karramarro bila ari ziren bitartean, Albanek harkaitz batzuen tartean betaurreko itxurako zerbait aurkitu zuen. Ez ziren betaurreko arruntak; izan ere, belarrian sartzeko kasko moduko bat zuten ezkerreko aldean. Oso politak ziren, hori kolorekoak eta berriak ziruditen, horregatik itzulerakoan hartu egin zituen eta toailetan zuen motxilan sartu etxera eramateko. Hurrengo eguna iritsi zen eta aspaldi antolatua zuten txangoa egin zuen bere lagunekin. Zarautzeko torreoira joan ziren denak goiz hartan eta Albanek harkaitzetan aurkitutako betaurreko itxurakoak eramane zituen, eguzkitik babesteko baliagarri izango zituela pentsatzen zuelako. Denak mendi bidean zihoazen eta Ainara lurrera erori zen harri batekin estroputz eginda. Ainara taldeko liderra zen, ederra, altua, ile luzeduna... Albane ez zen oso gustora egoten berarekin guztia berak esaten zuen bezala egin behar izaten zelako, baina

PROSA

lurrera erori zenean egokiena laguntzea zela iruditu zitzaion, bera ez zelako Ainara bezalakoa. Eskua eman zion eta lurretik altxatzen lagundu, baina momentu horretan "Ai ama ze kiratsa darion neska honi!" entzun zuen.

-Baina zer uste duzu zuk, loreak bezain lurrintsua zarela? Ba ez. -Esan zion Albanek Ainarari.

Denak isil-isilik Albaneri begirat geratu ziren, begirada zorrotz.

-Hori errespetu falta ikaragarria da eta heziera txarrekoa -esan zion batek.

Eta ez zen bat bakarra izan, denak hasi ziren hori ez zela esaten, gaiztoa zela eta oso gaizki hitz egin ziola Albaneri. Albane momentu horretan konturatu zen besteek ez zutela Ainarak esandakoa entzun, berak bakarrik entzun zuela, eta ziur zegoen aparatu horrek zuen kasko txiki horretatik entzun zuela. Pentsamenduak entzun zitzaieela ere ia ziur zegoen. Barkamena eskatu eta bide guztia probak egiten pasatu zuen benetan pentsamenduak entzun zitzaieela ziurtatzeko. Badaezpada inori ez kontatzea erabaki zuen. Denborarekin jakin zuen pentsamenduak nola entzun. Lehenik aparatua jantzi beharra zuen, ondoren pertsona ukitu eta begietara begiratu eta hori egindakoan momentu horretan pentsatzen ari dena entzungo du buruan, ezkerreko kasko txikitik. Aste batzuen buruan, Albanek benetako lagunak nor ziren jakin zuen, pozik zegoen botere hori edukitzeaz, baina denborarekin ez zekien hori ona edo txarra zen, berari buruz hainbat gauza txar entzun zituelako. Abuztua iritsi eta Lanzarotera joan zen bere familiarekin. Lehenik, Bilboko aireportura joan ziren hegazkina hartzeko. Bertan segurtasun gunean gizon altu batek begirada maltzur batekin begiratzen zion, Albanek urduri eta beldurtu samar, ahalik azkarren pasa zituen pasa beharrekoak, eta bere familia pasa zenean, beraien hegazkina hartzera joan ziren. Baina bidean Albanek gizon asko ikusi zituen berari begira eta berari jarraika ezkutuan, guztiak beltzez jantzita. Hegazkinera igo zen familia osoa, eta hegan hastean, Albane lasaiago zegoen ez zuelako lehengo gizonik ikusten. Lurreratzean ez zuen gizonik ikusi, baina bai emakume bat gizon misterioitsu haiek bezala jantzia, betaurreko eta jantzi beltzak soinean. Berak ez zekien zer gertatzen zen eta hainbesteko urduritasunarekin komunera joateko gogoia barrendu zitzaion.

-Ama, aita! Itxaron pixka batean komunera joan behar dut eta -esan zien gurasoei.

-Bale, baina bixkor, ez dugu-eta denbora askorik autoa hartzeko -erantzun zuen amak.

Albane komunetik irtetean emakume arraro hori ondoan zegoela nabaritu zuen, eta ateratzean, aparatua jantzi, ate aurrean jarri eta bera ateratakoan eskua ukitu zion zer arraio gertatzen zen jakiteko.

-Jo, noiz etorriko dira hauek? Berandu da!- entzun zuen.

Eta hori entzutean bi gizonen komuneko atea ireki zuten eta Albane beraien auto batean sartu zuten. Autoan Albaneri lasai egoteko esan zioten, ez zirela gaiztoak, betaurrekoak nahi zituztela beraiek egindakoak zirelako. Berak ezin zuen erreakzionatu, emozio gehiegi pilatu zitzaizkion batera.

PROSA

Fabrika baten moduko gun e batera iritsi ziren hamar minuturen buruan. Albanek negarrez beraiek esandakoa egin zuen.

-Eman betaurrekoak eta eseri aulki honetan. Lasai, ez du minik ematen -esan zuen gizon batek ahots grabe batekin.

-Zergatik!? Zer da hau?-galdetu zuen neskak negarrez.

-Makina honek memoria ezereztzen du, ez dugu nahi aparatuarena inork jakiterikj eta sentitzen dugu baina ezin gara fidatu.

Sokekin makinara lotu zuten eta bat-batean izugarrizko argi distira zabaldu zen, ondoren argia itzali eta Albane lo seko zegoen. Autoan sartu zuten eta ahalik azkarren aireportura eramane zuten, komunera. Minutu batzuk pasatakoan esnatu egin zen eta dena gogoratzen zuen, betaurrekoena izan ezik. Gero gurasoenganaa joan zen, haserre bizian zeuden denbora luzea zeramatelako itxaroten, eta oporrak izugarri ondo pasa zituzten hondartzan, sumendiak ikusten... Betaurrekoen arrastorik gabe..